

Joxe Azurmendi

Idazlea

'Jakín', ehungarrenean

■ *Jakín*-ek bigarren ibilaldiko ehungarren zenbakia ospatzen du egunotan. Aldizkaria sortu, 1956an sortu zen. Isilpean, Arantzazun. Ateratzeko ez zeukan baimenik, baina debekatua izatekoa bai. Uste dut, gerraondoko belaunaldi gaztearen lehenengo organo autonomoa edo, kontsideratzen duela aldizkaritxo hura, garai hori ongi aztertu duen Paulo Iztuetak. Izan ere, gero nabarmenduko ziren idazle gehienak bildu zituen. Ez zen oso gaiztoa, baina agintarien gustokoa ere ez nonbait —hainbeste aldiz gertatzen zaizu hori— eta, pare bat aldiz administrazioko gorabeheretan nahastu ondoren, azkenean 1969an debekatu egin zuten.

Orain ikusten den *Jakín* hau, ehungarren zenbakia ospatzen duena, 1977an berrisistakoa da, bai formatoan, kontzeptuan eta bai erredakzio ekipoan. Zuzendaritza beti Joan Mari Torrealdaiaren esku dagoela.

Batzuek gogoratu dezake: 1977 ikurrina legalizatu zen urtea da. Hori ere hildakoz eta odolez. Urtebete eta zertxobait lehenago hila zen Franco (Txiki, Otaegil!). Bakoitza bere modura prestatzen hasi zen, omen zetozen garai berrietara egokitzeko bere borroka. Batez ere prentsaren eta publikazioen mundua hasi zen asko mugitzen, erdaraz batik bat, baina euskaraz ere. *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eraberritu egin ziren; Donostian *Zehatz* pentsamendu aldizkaria sortu zen. Iparraldean *Zabal* izandakoaren segidan, *Jakín*-entzat ere ordua zen. Harrotasuna eta poza ematen zuen, zazpi urte Francok debekatua egon ondoren, berriro kaleratu ahal izateak, orainago legezko baimenekin. Eta baita planteamendu berriak asmatu beharrek ere, denbora berrietarako.

Alegia, *Jakín* bezalako kultur eta pentsamendu aldizkari orokor batentzat, etengabeko eginkizuna da etengabe egokitzen ibiltzea inguru aldakorri. Francoren azpian eztabaida politikoa asko, prentsan ez bazen liburutetan, euskaraz egiten zen (antz oraino ikertzaileek *ahaztu* egin dutena). *Jakín*-ek hor bere papertxo interesantea bete du. Franco hildakoan, ordea, eztabaida propio ideologiko politikoa egunkari eta as-

teketaritari pasa da, beste erritmo bixi-bixi bat hartu du, eta erdaraz nagusitu da. Arrapaladan *Punto y Hora*, *Garaia*, *Berriak*, etab., astekariak sortu dira. *Egin*, *Deia*, egunkariak, eta besteren batzuk, denak nolabait *euskal munduan*. Guzti hauentzat hemen ez baitago publiko handiegia. Eta euskaraz lan egin nahi baduzu, gainera, asmatu beharra daukazu nola egin, irauteko eta irauteak zentzu positibo bat edukitzeko. Gaiak ongi hautatu, lankide aiposak bilatu, ideia berriei atek zabaldu; eta zeure lekua ez galdu, zeure burua Administrazioari saldu, edo Alderdi edo Balerdiren baten morrotxo bilakatu.

Jakín-en indarra, bokazioz eta tradizioz daukan independentzia gordetzeko, bere harpidedunen leialtasun historiko haustezina izan da, batek; eta modu eta ideia askotako lankideek beti erakutsi dioten elkarlanerako gogo irekia, bestetik. Gaiak eskatu ahal, jende diferente askok kolaboratu du *Jakín*-en. Esan nahi du onarpen sozial zabal bat lortu duela. Baina lankidetzazabal hori izan duelakoxe eta harpidedunek leial eutsi diotelako ahal izan du onarpen hori lortu.

Ehungarren zenbakia dela eta, zuei denoi, harpidedunei eta lankideei eskerrak emateko tenorea da gaur zalantza gabe. Milesker, beraz. Sinestuta gaude, halere, esker egiazkoena orain arte bezalaxe lanean jarraitzea izango duzuela. Bitartean euskal prentsako panorama asko aldatu da 1977tik hona. Dozenaka herri-aldizkari dago gaur, alorrean alorreko aldizkari berezituak ere bai dozena erdiren bat, eta, batez ere, EUSKALDUNON EGUNKARIA daukagu. *Jakín*-ek aspalditik laguntza asko hartu du eta ematen ere prentsako kide gazteagoei saiatzten da ahal duentxoa ematen. Berriro eta etengabe gure inguru aldakor horretara egokitzuz, euskal kulturarekin martxan, martxa honen azterketan eta gogoetan jarraitu nahi genuke. Egiten ari garen literatura, irakas-kuntza, herrigintza, aztertzeko eta gogotatzeko kultur aldizkari nazionala eta librean izango da *Jakín* aurrerantzean ere, zuei eskerrak. ■

Mikel Aramendi



Sokal

I rabiatura —irriz, batzuk; irakinez, besteak— utzi ditu arestian zientzia argitalpen sakrastiak Alan D. Sokal-ek. New Yorkeko Unibertsitateko fisika irakasleak, bere *ateraldiarekin: Social Text*, soziologiaren alorrean munduan den aldizkari nagusienetakora bidali (eta argitaratzea lortu) du *Transgressing the Boundaries: Towards a Transformative Hermeneutics of Quantum Gravity* artikulua. Ez erregatu itzulitzen: askakizun inkongruente eta abstrusoa da artikulua. Izenburutik azken lerroarino. Hori bai, modako joeradunen *autoritateak* baliatuz hitzetik hortzera, aipamen —falsu—piloa dela medio.

Ganoragabekeria txaxtua iruditu zaie batzuei: atrebentzia osasuntsua besteei. Eratsueneak aldizkari zientifikoetako argitalpenen selekzio sistema aldatu beharra aldarrikatu dute. Nor edo nor k gogoratu du txinpanzekume bati, banana truke, pintarazitako koadroak erakutsi eta saldu zituen galeristaren kasua. Edota, oraintsu, zerrri-aska industrialak bere horretan eskultura lehiaketara aurkeztu eta finalista geratu denaren pasadizoa.

Baina zergatik ez, honutzango etorritz, aurrerago joan? Esate baterako, zergatik ez dira gure katedradunak, nor berean, baina isilka, aurkezten milaka oposiziole lehiatzen direneko azterketa horietara? Adibidez.

Unai Iturriaga



Iragan hurbila

B erandu jaiotze ginenoi, edo gutxienez gauza asko gertatu eta gero jaiotze garenoi, gertakari asko ezkatatu zaizkigu gertuko historiari. Duela urte batzuk, gure begien aurrean Euskal Herriko panorama politikoa zabaldu zitzaigunean, ez dut esango gauzak orain bezala zeudenik, baina bandoen banaketa behintzat egina zegoen. Hori baino hamar urte lehenago berriz, Euskal Herria, nik dakita zenbat sigla osatutako alderdi eta erakunde osatutako puzzle bat zen. Hamar urte geroago berriz, sigla horiek arrotz eta ulerkaitz egin izan zaizkigu askori herriko horma zaharren batetan oraindik ikusi ditugunean. «Ideologien garaia zuan hura», esan dit inoiz norbaitek. Gure aurreko belaunaldientzat hain garrantzitsua izan zen garai hartatik berriz, ezer gutxi iritsi zaigu guri. Gure joko-zelaian taldeak eginak zeuden gu iristerako eta badirudi aurretik gertatutako hori guztia erdi ilunpe batean geratu dela. Zerbait jakin nahi duenak eman biezio tabarra hari eta homi hontaz eta hartaz galdezka, batzuk egin izan dugun bezala. Baina beno, masturbazio mental honen helburua ez da liburu baten agerpena aipatu nahia besterik. Egunotan argitaratu da Txalapartaren eskutik *Autonomoekin solasean* izeneko liburua, non xumeki baina argi ematen den mugimendu haren berri. Horrelako lanei esker, egunen batean bizi izan ez genuenok behintzat argiago ikusiko dugu gure gertuko iragan hori.

L A P h I T Z A

